



**ADUNAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

## IHAUTERIAK ESKOLAN

Gaur ostirala, eskolako haurrak ihauterietako kalejiran ibiliko dira herrigunean zehar.

Eguerdiko 14.30tan irtengo dira eta 16.00etan bukatuko dute Txulobin.

## HONDAKINEN EDUKIONTZIAK

Dagoeneko aldatu dira herriguneko kontenedoreak. Udalean konturatzen gara aldaketa handia izan dela eta bisualki soterratuak ikusgarriagoak zirela. Aurreko bandoan eta herri batzarrean esan bezala egoerak behartuta aldatu dira.

Orain jarrita dauden kontenedoreak behin behinekoak dira. Batzuk nahiko zaharkituta daude. Hilabete bukaerarako kontenedoreak aldatuko ditu Mankomunitateak eta berriagoak ekarriko dira.

Bestalde kokapenak aztertzen ari gara, zona batzutan txukunago daude eta bestetan ez hainbeste. Beraz aldaketak egon daitezke. Aurreko bandoan esan bezala herritarren iradokizunak ongi etorriak dira Udalean.

Sistema ajustatzen ari gara beraz pazientzi pixka bat eskatzen dizuegu eta berriz ere... **BARKATU ERAGOZPENAK!**



**ADUNAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

## **EUSKAL HERRIKO SOKATIRA TXAPELKETA**

Bihar larunbata, arratsaldeko 17.00tan Adunako frontoian Euskal Herriko mutilen 600 kilotako soka-tirako izango da.

## **KIROL PISTA**

Kirol pistaren obrak aurrera dijoaz. Otsailaren bukaera edo martxoaren hasieran bukatzea aurreikusten da. Bukatu bezain laster konpostaje komunitarioko puntua berregingo da eta eskola baratzak ere bere tokia izango du. Informazio gehiago ematen joango gara.